

17-11-2018

VALVANERA – ANGUIANO

Errioxako Valvanera monasterioan hasiko dugu ibilbidea (1002m.). Ostatuaren ostean dagoen "Iturri Santua"ren ondoan, marra zurri gorriekin markatutako bidezidor bat doa gorantz. Laster, eraikin txiki baten ondoan ekialdera doan bidea hartuko dugu.

Cristo izeneko sakanetik igoz, hiru bat kilometrotara, Herradero lepora helduko gara (1360m.) eta I.E.aldera jarraituko dugu *Campastros* leporaino (1.400m).Hemendik abiatuz, bideak gora egiten du, E.aldera, behin 1475m. altueran lepoari jarraituz Pico La Rioja (1562m.) gailurrera eramango gaituen bidexka aurkituko dugu.



Tontorretik jeitsiz bide berari 1475mko altuerara helduz marka zuri gorriei jarraituz E. aldera doan bidea hartuko dugu. Mendi-bizkarrean aurrera doan babesik gabeko bideari jarraituko diogu *Cerro de las Frádigas* azpira heldu arte (1400m), berau I. aldetik inguratuz, pagadi bat zeharkatuz lehenengo, ta harizti bat ondoren, bidegurutze den *Cervanco* muinoraino (1225m).



Bertan, 3 kilometroko jaitsierari ekingo diogu *Arteen bidexkari* jarraituz, *Anguianoko Las Cuevas auzoraino* (640m), behin hemen aurrera ekingo dugu *Najerilla* ibaia zeharkatzen duen *Madre de Dios* (zergatik ote?) izeneko zubi ikaragarria gurutzatu arte.

EGURALDIAREN IRAGARPENA IKUSI

GPSrako tracka DESKARGATU

Compártelo:

[Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Google+ \(Opens in new window\)](#)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota

Kokapena

Metatutako desnibela

Luzera

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

7:00a.m. PANERAKO BUS geltokia (mapan ikusi)

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

VALVANERA - ANGUIANO (ERRIOXA)

Irteerarako izena emateko azken eguna

15/11/2018

Jakin beharreko kontu teknikoak

Orientatzen eta planoak irakurtzen jakin

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Dist: 15,5km Des: +640m / -1005m - 6 orduko ibilbidea, gutxi gora behera.

Material tekniko beharrezkoa

- Mendirako botak - Zangozorroak - Makilak - Eskularruak - Betaurrekoak - Txanoa - Kapa/ Euritarako arropa - Berotzeko arropa - Biderako ura eta janaria (abiapuntuan iturria dago) - Aldatzeko arropa (busean utz daiteke)

Bestelako oharrak

Taldeak bazkideen bidaiaren zati bat ordainduko du. BAZKIDEAK: NAGUSIAK: 10 €/ TXIKIAK DOHAINIK EZ-BAZKIDEAK: NAGUSIAK: 18 €/ TXIKIAK: 5 € Autobusean bertan ordaindu ahal izango duzue. Bazkideek lehentasuna izango dutela gogorarazten dizuegu, ondoren izen ematearen ordenari jarraituz, beteko ditugu lekuak. Anguianon, badaude bi taberna salda zein bokatak, edota razioak presta ditzaketenak (aurretik eskatuz) (Eskaintza autobusean ikusi ahal izango duzue) ****IRTEN AURRETIK KONTUTAN HARTZEKO**** 1. Arretaz irakurri informazio fitxa (desnibela, ibilbidearen luzeera eta iraupena) zuretzako egokia ote den erabaki dezazu. 2. Gailurrako antolatzaileek bidea ezagutzen dute, egin kasu haien argibideei. 3. Zalantzak galdetu, arazorik edo beharren bat baduzu zurekin doazenei eta antolatzaileei jakin arazi. 4. Ibilbidea adin txikikoekin egin nahi baduzu, DERRIGORREZKOA DA ANTOLATZAILEKIN KONTAKTUAN JARTZEA IZENA EMAN BAINO LEHEN.

Argibide gehigatarako

Osteguna 20.00 -21.00 (kluba 656712997) - Elen 656712997 eguerdik aurrera

